



## ZEGAMA KO UDALA

### **2023KO MAIATZAREN 2AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2023KO OTSAILAREN 7KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- 2023KO UDAL AURREKONTUKO 3. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.
- 3.- MUGIMENT KIROL TXARTELA (MUGIMENT KTX) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONARPENA. 2023-2026 ALDIA.
- 4.- POLIKIROLDEGIKO GIMNASIOKO ETA UDAL-IGERILEKUKO (ETA TABERNA) ZERBITZUAK OSOKI KUDEATZEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.
- 5.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. GARAPEN AGENTZIA ETA ZEGAMA KO UDALAREN ARTEKO "ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA" HITZARMENA.
- 6.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.
- 7.- GOIERRI IRRATI TELEBISTAREKIN LANKIDETZA ANTOLATU ETA FINANTZIATZEKO 2023RAKO HITZARMENA.
- 8.- GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN BIDEZ ENERGIA ELEKTRIOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO ESPARRU AKORDIOA (X19033 ESPEDIENTEA) LUZATZEA.
- 9.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 10.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).


#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).  
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).  
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)  
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).  
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).  
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).  
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.



## ZEGAMA KO UDALA

### 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2023KO OTSAILAREN 7KO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2023ko otsailaren 7ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

### 2.- 2023KO UDAL AURREKONTUKO 3. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzako, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Onartzea Udaltzako honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	ASFALTATZE ETA MARGOTZE LANAK	13.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		13.000,00

#### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	13.000,00
<b>GUZTIRA</b>		13.000,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.



## ZEGAMAKO UDALA

### **3.- MUGIMENT KIROL TXARTELA (MUGIMENT KTX) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONARPENA. 2023-2026 ALDIA.**

Espedientea ikusirik.

Udalbatzarrak 2023ko urtarrilaren 17an egin zuen bilkuran Zegamako Udalerria "Kirol Txartela Mugiment" proiektura atxikitzea onartu zuen.

2023ko otsailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 24/2023 EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 30ekoa, argitaratu zen, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin Mugiment Kirol Txartela (Mugiment KTX) ezartzeko lankidetzaz hitzarmenaren eredia argitaratzea xedatzen duena. 2023-2026.

Hau da hitzarmenaren testu osoa:

*" EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK (KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN BIDEZ) ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEK SINATU BEHARREKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN EREDUA, MUGIMENT KIROL TXARTELA (MUGIMENT KTX) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZARTZEKO. 2023-2026 ALDIA*

*Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoan ageri den egunean.*

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

*Alde batetik, ..... jauna/andrea, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren titularra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta haren ordezkari gisa diharduena.*

*Eta, bestetik, ..... jauna/andrea, .....ko Udaleko alkatea den aldetik, aipatutako udalaren izenean eta ordezkari gisa diharduena.*

*Bi alderdiek gaitasun eta legitimazio nahikoa aitortzen diote elkarri lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko eta bertan ezartzen diren baldintzetan behartuta geratzeko, eta, horretarako, honako hau*

**AZALTZEN DUTE:**

*Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) Administrazio Orokorrak eta hitzarmena sinatzen duten toki-erakundeek euren betebeharren artean daukate herritarrentzako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea eta baliabide publikoak esleitzean efizientzia bilatzea, parte-hartzearen, objektibotasunaren, gardentasunaren eta elkarlanaren printzipioen arabera, gainerako administrazio publikoetan xede komunak lortzeko jardutean. Hain zuzen ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.k) artikuluan ezartzen da, besteak beste, administrazio publikoen arteko lankidetzaz, lankidetzaz eta koordinazio-printzipioen errespetua. Era berean, Euskadiko Toki Erakundeetako buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikuluan jasotzen da lankidetzaz hitzarmena dela kudeaketa publikorako tresnarik eraginkorrena.*

*Ondorioz, helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa da administrazio publikoen arteko lankidetzaz aragozteko beharrezkoak diren bideak antolatzea.*

*Bigarrena.- Bi aldeek hitzarmen honen xede den gaian eskumenak dituzte, eta lankidetzaz hitzarmen hau formalizatu dute, kirol-azpiegitura publikoen erabileraren arrazionalizazioa hobetzeko eta, horrela, herritarrei zerbitzu zabalagoa eta hobea eskaintzeko.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.36 artikuluan ezarritakoarekin bat, EAEk eskumen eskusiboa dauka kirol-arloan.*

*Horrela, botere publiko guztiek bermatu behar dute behar bezala gauzatzen dela kirola egiteko eskubidea. Horretarako, herri-administrazioen arteko lankidetzaz arduratsua izan beharko du, kirolaren arloan, eta kirol-instalazioen ahalik eta sarerik onena planifikatu eta sustatu beharko da; hori xedatzen dute, hain zuzen ere, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 2.3.m) eta 2.3.p) artikuluek, hurrenez hurren.*



## ZEGAMAKO UDALA

EAEren barruko eskumen-banaketari dagokionez, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 4.1 artikulua honako hau ezartzen du: «Autonomia Erkidegoko erakunde komunek kirol arloan Euskal Autonomia Erkidegoari Autonomi Estatutuaren indarrez dagozkion eskumen guztiak erabiliko dituzte, salbu eta lege honetan edo gainontzeko antolamendu juridikoan lurralde historikoetako foru-organoei, udalei edo gainontzeko toki-erakundeei ematen zaizkienak.».

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19 artikuluan xedatutakoaren arabera, toki-erakundeei dagokie, berezko eskumen gisa, «Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea». Ildo beretik, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, 6.b) artikuluan xedatu duenez, udalei dagokie, bakoitzak bere lurralde-eremuan, udalaren kirol-ekipamenduak kudeatzea eta mantentzea.

Bestalde, eta hitzarmen honen xedeari dagokionez, erakunde erkideen eskumena izango da, jarduera fisikoa sustatzeko eskumena baliatuz, udaleko kirol-ekipamenduen kudeaketa eta mantentzea gainditzen duen oro.

Hirugarrena.- «Mugiment Kirol Txartela» (aurrerantzean, Mugiment KTX) txartel birtuala da, eta udalerrri bateko udal-kirol zerbitzuko abonatuak aukera ematen die atxikitako kirol-instalazioetara EAE osoan sartzeko. Ekimenaren bidez, kirol-instalazioen eta -praktiken eskaintza handiagoa eman nahi zaie herritarrei, bai eta baliabide publikoen kudeaketa hobetu ere, lehendik dauden kirol-azpiegituren erabilera optimizatuz.

Horregatik guztiagatik, alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute toki-erakundeetako araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako esparruan, honako hauek kontuan izanda,

### KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea eta helburua.

1.- Hitzarmen honen xedea da udal sinatzailearen eta EAEko Administrazio Orokorren arteko lankidetzarako termino eta baldintza orokorrak ezartzea, Mugiment KTX txartela ezartzeko, Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten herritarren udal-instalazioak herritarren eskura jarri ahal izateko, eta, horrela, euskal herritarren kirol-jarduera sustatzeko.

2.- Hitzarmenak helburutzat du jarduera fisikoa sustatzea, sedentarismoa murriztea eta euskal herritarren bizi-kalitatea hobetzea. Horretarako, dauden udal-instalazioen erabilera optimizatu nahi da, ahalik eta pertsona gehienek erabil ditzaten, eta pertsona horiek, aldi berean, erraztasunak izango dituzte kirola egiteko.

Bigarrena.- Mugiment KTX txartel birtuala.

Mugiment KTX txartel birtuala da, eta, APP baten bidez, aukera ematen die Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalerrietako instalazioetan abonatutako pertsonari parte hartzen duten gainerako udalerrietako instalazioak erabiltzeko. Funtzionamendua eranskinean dago jasota.

Hirugarrena.- Erakunde bakoitzaren konpromisoak.

1.- Aldeek konpromisoa hartzen dute txartelaren funtzionamendua garatzen duen hitzarmen honen eranskina betetzeko.

2.- EAEko Administrazio Orokorrek, Mugiment KTX ekimena garatzeko, urtean 80.000 euro emango ditu gehienez, eta Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalen artean banatuko dira, hitzarmen honen bosgarren klausulan, konpentsazio-poltsari buruzkoan, aurreikusitako moduan.

Ekarpen hori, ordea, kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan kontsignatzearen mende.

3.- Udal sinatzaileak konpromisoa hartzen du Mugiment KTX txartelaren erabiltzaileen eskura jartzeko erabakitzen dituen instalazio, zerbitzu eta jarduerak.

Era berean, txartela ezagutzera emateko, eskuragarri dituzten komunikabide guztiak (udalaren webgunea nahiz aplikazioak, iragarkiak udaletako kirol-instalazioetan, prentsaurrekoak, etab.) erabiltzera konprometitu da.



## ZEGAMAKO UDALA

*Udalak edozein unetan eman ahal izango du baja Mugiment KTX ekimenean, Batzorde Teknikoari jakinarazita. Batzorde Teknikoak erabakiko ditu bajaren izapidetzearekin zerikusia duten alderdi guztiak, Mugiment KTX ekimenean parte hartzeari uzten dion erakundearentzako konpentsazio-poltsaren banaketa proportzionala barne.*

*Laugarrena.- Mugiment KTX ekimenaren Batzorde Teknikoa.*

*1.- Batzorde tekniko bat eratuko da, klausula honen hirugarren puntuan zehaztutako funtzioez gain, Mugiment KTX ekimenaren harira sinatzen diren hitzarmenen jarraipena egiteko.*

*2.- Batzorde Teknikoa osatuko dute, alde batetik, EAEko Administrazio Orokorreko teknikari batek eta, bestetik, Mugiment KTX ekimenaren harira sinatzen diren hitzarmenak sinatzen dituzten udal bakoitzeko teknikari banak.*

*Bilerak baliodunak izango dira, baldin eta gutxienez kideen % 50 bertaratzen bada.*

*Erabakiak bertako kideen gehiengoz hartuko dira.*

*Lehendakaria eta idazkaria Batzordeko kideen artean hautatuko dira, kideen gehiengoak hala erabakita.*

*3.- Batzorde Teknikoak ondoko funtzio hauek izango ditu, besteak beste:*

*a) Mugiment KTX ekimenean parte hartu duten udalen artean konpentsazio-poltsa banatzeko modua erabakitzeke irizpide teknikoak ezarriko ditu.*

*b) Hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten eta hitzarmenean aurreikusi ez diren gai guztiak interpretatu eta ebatziko ditu, alderdiak ados jarrita.*

*Bosgarrena.- Konpentsazio-poltsa.*

*1.- EAEko Administrazio Orokorreko egiten duen urteko ekarpena, hala badagokio, konpentsazio-poltsa elikatzeke erabiliko da.*

*2.- Batzorde Teknikoak konpentsazio-poltsa banatzeko irizpideak ezarriko ditu. Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udal guztien artean egingo da banaketa, instalazioen urteko erabilieratik lortutako datuetan oinarrituta.*

*Instalazioen urteko erabilieraren azterketaren ondorioz, Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalek saldo positiboa (erroldatutakoek beste udal parte-hartzaile batzuetako instalazio gehiago erabili dituzte) edo negatiboa (erroldatutakoek gutxiago erabili dituzte parte hartzen duten beste udal batzuetako instalazioak) eman ahal izango dute. Sortutako saldo negatiboak konpentsatzeko erabiliko da konpentsazio-poltsa.*

*3.- Batzorde Teknikoak txosten bat egingo du, eta bertan jasoko ditu Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duen udal bakoitzari dagozkion zenbatekoak ordaindu ahal izateko behar diren datu guztiak.*

*Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udal guztiei bidaliko zaie txostena.*

*4.- Udal bakoitzari dagozkion zenbatekoaren ordainketa, hala badagokio, instalazioen urteko erabiliera-aldiaren ondorengo urtean egingo da; beraz, 2023-2026 aldian egiten diren ordainketak dagozkio 2022-2025 aldiko instalazioen urteko erabilierari.*

*Ordainketa egiteko, Batzorde Teknikoak aldeztu aurretik klausula honen hirugarren apartatuan aipatutako txostena egin eta igorri beharko du.*

*5.- Urte naturala amaitu baino lehen, udal batek Mugiment KTX ekimenean parte hartzeari utzi ahal izango dio. Kasu horretan, ez zaio egingo instalazioen urteko erabilieraren ebaluazioa, urte horri dagozkionez egin beharko zukeena, eta, ondorioz, ez du parte hartuko klausula honetan araututako konpentsazio-poltsaren banaketan.*

*Seigarrena.- Izaera eta araubide juridikoa.*



## ZEGAMAKO UDALA

*Hitzarmen hau administratiboa da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren XIII. kapituluaren xedatutakoaren arabera arautuko da.*

*Zazpigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia eta amaiera, eta suntsiarazpena.*

*1.- Hitzarmen hau lau urtez egongo da indarrean, izenpetzen den egunetik zenbatzen hasita. Nolanahi ere, dagokion urteko zenbatekoa emateko, lehenengoa 2023ko aurrekontu-ekitaldiari dagokiona izanik, aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.*

*2.- Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, lau urteko aldi baterako, gehienez, edo hura azkentzea.*

*3.- Hitzarmenaren indarraldiari buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe, honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:*

*a) Erakunde sinatzaileen arteko adostasuna, idatziz gauzatu beharko dena, edo alderdietako edozeinek idatziz uko egitea, gutxienez hilabete bat (1) lehenago.*

*b) Hitzarmenaren xede diren jarduerak garatzeko gerora sortutako ezintasuna, legezkoa edo materiala.*

*c) Alderdi sinatzaileetako edozeinek hitzarmen honetako klausulak ez betetzea, gutxienez hilabete bat (1) lehenago beste alderdiari idatziz jakinarazita.*

*d) Aplikatu beharreko legerian jasotako beste edozein.*

*Zortzigarrena.- Hitzarmena aldatzea.*

*1.- Alderdiak noiznahi proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea, bidezkotzat jotzen diren aldaketak egiteko.*

*Hitzarmenaren edukia aldatzeko, Mugiment KTX ekimenean eragina izan dezakeen heinean, ekimen horretan parte hartzen duten udal guztien ahobatezko adostasuna beharko da.*

*2.- Klausulak berrikusten badira, aldaketak eranskin bidez txertatu beharko dira, eta Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten udalek sinatu beharko dute.*

*Bederatzigarrena.- Gatazkak ebaztea.*

*1.- Hitzarmen hau sinatu duten alderdiak konpromisoa hartu dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkar hartuta konpontzeko.*

*Gainera, gorabeheren jatorria Mugiment KTX ekimenean eragina izan dezaketen alderdiak badira, laugarren klausulan aurreikusitako Batzorde Teknikoa erabili beharko da horiek ebazteko.*

*2.- Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean auziren bat sortzen bada, eta laugarren klausulan aipatutako batzorde teknikoak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan helegitea jarri ahal izango da, jurisdikzio hori araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoarekin bat etorriz.*

*Hamargarrena.- Datu-babesa.*

*Hitzarmen honen ondorioz egiten diren datu pertsonalen tratamenduek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa errespetatu beharko dituzte.*

*Eta azaldutako guztiarekin ados egonik, hitzarmen hau onartzen dutela frogatze aldera, aldeek hitzarmenaren bina ale sinatzen dute, goiburuan adierazitako egunean eta lekuan.*

*Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
.....ko alkatea,*



## ZEGAMAKO UDALA

ERANSKINA

TXARTELAREN FUNTZIONAMENDUA

*Mugiment KTX txartela txartel birtuala da. Ahalik eta hoberen erabiltzeko, gomendatzen da gailu mugikor bat izatea, Interneteko konexioarekin. Gailu mugikorrik ez badauka, erabiltzailea abonamendu-txartela eta NANA aurkeztuta sartu ahalko da instalazioetan.*

*Jarraian azalduko da zer urrats jarraitu behar dituzten gailu mugikorra eta Interneteko konexioa dutenek txartel birtuala erabiltzean:*

- 1.- Mugiment KTX aplikazioa instalatzea.*
- 2.- Datu pertsonalak, helbide elektronikoa eta NANA sartuta erregistratzea, eta zer erakundetako bazkide edo abonatu diren adieraztea.*
- 3.- Erregistroa egin eta dagokien erakundeko kide direla balioztatu ondoren, jakinarazpen bat jasoko dute.*
- 4.- Txartel digitala eta NANA erakustea kirol-instalazioan sartzera.*
- 5.- Instalazioko langileak sarbidea erregistratuko du, erabiltzailearen gailuan instalazioaren egiaztapen-kodea sartuta.*

*Pertsona aplikazioan erabiltzaile gisa erregistratzen denean, zer udal kirol-zerbitzutan dagoen abonatuta adierazi beharko du. Horrela, Mugiment KTX ekimenean parte hartzen duten erakunde guztiei posta elektronikoz jakinarazi ahalko zaizkie erregistro berriak. Zerbitzu bakoitzaren arduradunek aginte-koادرora jo beharko dute, erregistro bakoitza eskuz baliozkotzeko eta erabiltzaileei parte hartzen duten gainerako zerbitzuetan txartel birtuala erabiltzeko aukera emateko.*

*Erabiltzaileak txartel birtuala erakusten duenean beste instalazio batzuetan sartzeko, bertako arduradunak sarrera baliozkotu beharko du, sartzan den pertsonaren gailuan kode bat sartuta. Hala, sistemak informazio guztia artxibatuko du: Mugiment KTX txartelaren erabiltzailearen datuak, zer zerbitzutara dagoen abonatua, zer instalaziotan sartu den eta zer zerbitzu erabiltzeko edo zer jardura gauzatzeko.*

*Hitzarmena sinatzen duten erakunde guztiek aginte-koادر bat izango dute. Webgune baten bidez sartuko dira, eta, bertan, erakunde horietako arduradunek, instalazioak kudeatzeaz gain, txartelaren erabilera-txostenak eta datu estatistikoak lortu ahalko dituzte.*

*Gailu mugikorrik eta/edo Internetarako sarbiderik ez duten pertsonak NANarekin eta beren eraikineko abonatu-txartelarekin identifikatu beharko dute udal-instalazioetan. Horrela, udal-instalazio bakoitzaren administratzaileak intranetara sartuko dira eta alta emango diote instalazioetara sartzan den erabiltzaileari."*

Horrenbestez, adierazitako hitzarmenaren onarpena bideratzearen aldeko irizpena ema da, eta honen onarpena egitea proposatu da.

Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

**LEHENENGOA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez eta Zegama Udalak Mugiment Kirol Txartela (Mugiment KTX), Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko sinatu beharreko lankidetzeta-hitzarmena onartzea. (2023-2026 aldia).

**BIGARRENA:** Alkateari hitzarmena sinatzeko baimena ematea, bai eta hitzarmenaren bidez hartutako konpromisoerik buruzko beharrezko agiriak ere.

**HIRUGARRENA:** Hitzarmena udaleko web orrian argitaratzea.

### **4.- POLIKIROLDEGIKO GIMNASIOKO ETA UDAL-IGERILEKUKO (ETA TABERNA) ZERBITZUAK OSOKI KUDEATZEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.**

Espedientea ikusirik.

Udalbatzarrak, 2021eko apirilaren 20an egin zuen bilkuran, Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzea\_kontratatzeko administrazio administrazio eta tekniko baldintzen pleguak onartu zituen, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioarekin.

Kontratazio egutegia honako hau izan zen:



## ZEGAMAKO UDALA

- 1.- Lizitazioaren iragarkia kontratazio plataforman: 2021-04-22
- 2.- Eskaintzen aurkezpena: 2021-05-07 arte, 14.00 orduak.
- 3.- Gaitasunaren eta kaudimenaren gutun- azalean aurkeztutako administrazio-dokumentazioaren kalifikazioa ("A" artxibo elektronikoa). 2021-05-10 14:00 orduetan.
4. "B" artxibo elektronikoa irekitzea (balio-iritziaren mende dauden proposamen teknikoaren memoria tekniko). 2021-05-10 14:00 orduetan.
- 5.- "C" artxibo elektronikoen irekiera egiten da, ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI BALIOZTATU DAITEKEEN DOKUMENTAZIOARI buruzkoa. 2021-05-40 14:00 orduetan.

Horren arabera, Kontratazio Mahaiak, 2021eko maiatzaren 14an, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua honakoaren arabera esleitzea:

ZERKI KOOP. ELK. TXIKIA (F75042309) enpresari, 50.500,00 euro gehi 10.605,00 euro BEZaren %21ari dagozkionak, guztira, 61.105,00 eurotan BEZ barne esleitzea, baldintzen pleguetan eta aurkeztutako proposamenaren arabera.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (hobekuntzak eta egite epea, 2 urte luzagarriak urtebetez, bi aldiz gehienez, kontratuaren iraupen osoa gehienez lau urtekoa izanik).

Administrazio baldintzen pleguko 21.3. klausulan adierazitakoaren arabera, kontratazio organoak esleipendunari bertan ezarritako agiriak eskatu zizkion.

Agiri horiek aurkeztu ondoren, eta administrazio baldintzen pleguko 23. Klausulan adierazitakoaren arabera, 2021eko maiatzaren 25eko Alkatetza Ebazpenaren bidez, espedientean jasotako proposamena jarraituz, ZERKI KOOP. ELK. TXIKIA (F75042309) enpresari adierazitako kontratua esleitzea ebatzi zen. Udalbatzarrak, 2021eko ekainaren 1ean egindako bilkuran adierazitako erabakia berretsi zuen.

Esleipen horren arabera, bi aldeek, horrela erabakiz, kontratu hau formalizatu zuten 2021eko ekainaren 8an.

Bi urteko epea igaro ondoren, kontratuaren urtebeteko lehenengo luzapena egitea adostu da, eta ondorio horietarako, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- ZERKI KOOP. ELK. TXIKIA (F75042309) enpresarekin, polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko sinatutako kontratuaren urtebeteko (1 urte) lehen-luzapena onartzea.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

**5.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. GARAPEN AGENTZIA ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO "ELKAR-EKIN GIZARATERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA" HITZARMENA.**

Espedientea ikusirik.

Alkateak, Goierrri Ekimena S.A. Garapen Agentziak helarazitako hitzarmenaren azalpena egiten du.

Horren arabera, "Elkar-Ekin gizarateratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuak, pertsonari egokituak: prestakuntzatik enplegura" hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztu zitzaion udalari.





## ZEGAMAKO UDALA

Hitzarmenaren helburua da, programan parte hartzen duten pertsonen lanekoak ez diren prestakuntza praktikak jasotzea.

Onarpenaren presa izaera kontuan izanik, eta hau bideratzea komeni zela iritzi ondoren, apirilaren 5eko Alkatetza Ebazpenaren bidez hitzarmena onartu zen, eta bere berrespena bideratzeko hitzarmenaren berri ematen zaio Udalbatzarrari.

Hau da hitzarmenaren testu osoa:



**GOIERRIKO EKIMENA, S.A. GARAPEN AGENTZIA ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO "ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA" PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN LANEKOAK EZ DIREN PRESTAKUNTZA-PARKITKAK EGITEKO SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENA.**

Zegaman, 2023ko apirilaren 5 ean

### BILDUTA

Alde batetik, Zegamako Udaleko (IFK: P2002600A; helbidea: Plaza Jose Maiora, 20215 Zegama, Gipuzkoa) alkatea den Joseba Izagirre Arozena jaunak.

Beste alde batetik, Don Iker Galparsoro Lasa, Goierriko Garapen Agentziako (Goierriko Ekimena, S.A.) zuzendari-kudeatzaile gisa, Goieki, IFK A20460747, eta helbidea Arranomendia, 5, 20240 Gipuzkoa.

Parte-hartzaileek, hurrenez hurren duten ordezkaritzan dihardutela, agiri hau formalizatzeke beharrezko lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta

### ADIERAZTEN DUTE

I.- Goleki Garapen Agentzia Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraingo Udalen mendeko erakundea da, eta sektore publiko instituzionalaren parte da. Sozietatearen helburu soziala Goierri Eskualdeko garapen sozial eta ekonomikoa da, eta, besteak beste, lanerako prestakuntza- eta orientazio-jarduerak eta -zerbitzuak gauzatu ahal izango ditu, besteak beste, langabetuak gizarteratzeko eta laneratzeko diseinua eta laguntza, batez ere gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan daudenak.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak "Elkar-EKIN Lanean" programa jarri du abian, enplegarritasunerako eta aktibazio inklusiborako sail anitzeko estrategia integratua, suspertze eta lehiakortasun ekonomikoaren, kalitatezko enpleguaren eta gizarte-politiken bidez, enplegua sustatzeko eta laneratzeko 2021eko laguntzen deialdiaren esparruan. Esparru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki du Golekiko Garapen Agentziari (CIF-A20460747) **ELKAR-EKIN**



## ZEGAMAKO UDALA



**GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA** proiektua garatzea.

**III.- ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA** proiektuaren helburu nagusia aktibazio, prestakuntza eta enplegu-ekintzen multzo bat garatzea da, ballabideak optimizatu eta eragileen arteko sinergiak sortzeko, hainbat arrazoiengatik laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen motibazioa eta enplegarritasuna hobetzeko azken helburuarekin, tartean dauden erakunde guztiak indartuta enplegu normalizatua lor dezaten.

Proiektuak banakako ibilbideak eraikitzea aurreikusten du, planteatutako helburuak lortzeko asmoarekin: produktibitate pertsonala aktibatzea eta garatzea, prestakuntza/kualifikazioa eta lan-merkatuarekin lotzeko fasea.

Banakako prestakuntza-prozesu horretan, produkzio-testuinguruan ikasteko aldi bat aurreikusten da, Goierri Eskolarekin, Caritasekin eta Sarearekin lankidetzan egingo dena, eta, hala badagokio, parte-hartzaileen lanbide-profilarekin lotutako jarduerak egiten dituzten enpresetan, jasotako prestakuntza teorikoa osatzeko.

**IV.-** Goieki Garapen Agentziaren interesekoa da Zegamako Udala-rekin elkarlanean aritzea **ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA** proiektuaren lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak garatzeko. Bestalde, lorezaintzan lan egiten duen Zegamako Udalak interesa du Goieki Garapen Agentziarekin elkarlanean aritzeko **ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA** proiektuaren barruan garatzen ari den prestakuntza-programetan, bertan parte hartzen duten ikasleek prestakuntza pertsonalizatuagoa eta osatuagoa lortzeko beharrezkoak diren lanez kanpoko prestakuntza-praktikak egin ditzaten erraztuz, etorkizuneko lanbidea hobeto gauzatu dezaten, aipatutako prestakuntza-programa praktikoa emateko instalazio egokiak izanda.

Azaldutakoa ikusita, alderdien interesekoa da **ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA** proiektuaren prestakuntza praktikoa garatzeko bi erakundeen arteko lankidetzara arautzea, eta, horretarako, lankidetz hitzarmen bat ezartzea eta formalizatzea, honako klausula hauen arabera:



## ZEGAMAKO UDALA



### KLAUSULAK

#### Lehenengoa: Xedea.-

Hitzarmen honen xedea da Goieki Garapen Agentziaren eta Zegamako Udalan arteko lankidetzaz-esparrua arautzea, **ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATI ENPLEGURA** proiektuaren barruan prestakuntza egiten duten ikasle onuradunek tutoretzapeko lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak egin ahal izan ditzaten, eta, horren bidez, benetako lan-giroarekin zuzeneko harremana izan dezaten, bakoitzaren lanbide-profilari dagokion produkzio-antolaketa eta lantokiaren lan-harremanen sistema ezagutu ahal izan dezaten, laneratzeko etorkizuneko xedearekin.

#### Bigarrena: Zegamako Udala-ren konpromisoak.

**Zegamako Udalak** konpromisoa hartu du ikasleei harrera egiteko eta programan aurreikusitako lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak egiten laguntzeko, beren prestakuntza integrala osatze aldera.

Mercy Akhakze, NAN: X9911054D lanekoak ez diren prestakuntza-praktiken programan parte hartzeak ez du esan nahi hitzarmen honetan ezarritakoak baino konpromiso gehiago hartuko dituenik, eta inola ere ez da lan-kontratu baten berezko betebeharririk sortuko. Ikasleen eta Zegamako Udala-ren arteko lan-harremana ez denez, lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak amaitzean ikaslea plantillan sartzen bada, egonaldiaren denbora ez da antzinasunerako zenbatuko.

Zegamako Udala eta ikasleen artean kontratu-harremana egotea bateraezina da hitzarmen honetan araututako lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak egitearekin.

Lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak hasi aurretik, Jose Luis Berasategi Arrieta jaunak, Zegamako Udala-ren ordezkari gisa, prestakuntza-programaren edukia espezifikoa, praktikak egingo dituzten ikasleen izen-zerrenda eta ordutegia jakinaraziko dizkie praktikak egingo diren lantokiko langileen legezko ordezkariari.

Ikasleei Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arauari buruzko prestakuntza eta informazioa emango die, eta, hala dagokionean, baita babes-ekipamendu indibidualei buruzkoa ere.

Jose Luis Berasategi Arrieta jaunak, Zegamako Udala-ren ordezkari gisa, lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak amaitu eta hamabost eguneko epean, Goieki Garapen Agentziari ziurtagiri indibidual bat bidaliko dio ikasle



## ZEGAMAKO UDALA



bakoitzarentzat, egindako praktika-denbora aitortuko duena, praktiken programa eta aprobetxamendu-maila zehaztuta.

### Hirugarrena: Goierriko Ekimena, S.A. (Goieki) Garapen Agentziaren konpromisoak

Goieki Garapen Agentziak hitzarmenaren garapena errazteko konpromisoa hartzen du, honako jarduera hauen bidez:

- a) Zegamako Udala-ri prestakuntza-lankidetzako programari buruzko informazio guztia emango dio, eta praktikak egin bitartean sor daitezkeen zalantza guztiak argituko ditu.
- b) Ikasleak enpresaren ordutegi-koadranteetan sartuta ez daudela eta lan-asistentziako kontrolaren mende ez daudela egiaztatuko du.
- c) Ikasleen absentiak kontrolatuko ditu, lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak esleituta dituzten egun eta orduetan

Ikasleek lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak egiten dituzten lantokian edo lantokirako joan-etorrietan izan ditzaketen istripuei aurre egiteko, bai eta erantzukizun zibileko istripuei aurre egiteko ere, Goieki Garapen Agentziak dagozkion aseguru-polizak ditu sinatuta.

### Laugarrena: Praktiken garapena. -

Dokumentu honen I. eranskinean zehazten da Zegamako Udalean prestakuntza-praktikak egingo dituzten ikasleen zerrenda.

Lanekoak ez diren tutoretzapeko prestakuntza-praktiken hasieran, ikasleek dokumentu bat sinatuko dute (II. eranskina), eta honako konpromiso hauek hartuko dituzte bertan:

- 1.- Erakunde hartzailearen arauak betetzea, bai eta programan aurreikusitako praktiken ordutegia ere.
- 2.- Programaren arabera agintzen zaizkion zereginetan arduraz aplikatzea.
- 3.- Lanbide-sekretua gordetzea egonaldian eta amaitu ondoren.
- 4.- Praktiketako egonaldia amaitu ondoren, praktiken balorazioaren eranskina aurkeztu beharko zaio Goiekiko Garapen Agentziari, behar bezala beteta, eta bertan iruzkinak sartu ahal izango dira.



## ZEGAMAKO UDALA



Ikasleek beren gain hartutako konpromisoak betetzen ez badituzte, Zegamako Udala-ri berehala jakinaraziko die Goiekiko Garapen Agentziari eta ikasleari, eta aldez aurretik entzunda, bi aldeetako tutoreek dagokion erabakia hartuko dute, lanekoak ez diren prestakuntza-praktiketarik kanpo uztea barne.

### **Bostgarrena: Hitzarmenaren indarraldia. -**

Hitzarmen honek apirilaren 17tik maiatzaren 30 arte iraungo du, 210 lanorduko iraupenarekin, eta sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

### **Seigarrena: Datu pertsonalak.-**

Aldeek konpromisoa hartzen dute behar bezala eta uneoro betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoak, ezarritako lege-eskakizunen arabera jasotako xedapenak, eta, bereziki, 25. artikulua eta 78. Kotsideratua aplikatuz, datu pertsonalen tratamenduen arduradun gisa onartzen da, eta konpromisoa hartzen du datu horien tratamenduarekin lotutako aurretiazko arriskuak tratatzeko.

Emandako datuak isilpean erabiliko dira, eta Goiekiko Garapen Agentziak kudeatutako jarduerari buruzko informazioa bidaltzeko baino ez dira erabiliko. Goiekiko Garapen Agentziak datuak beste helburu batzuetarako erabili nahi baditu, aldez aurretik berariazko baimena eskatuko da.

Goiekiko Garapen Agentziak tratatutako datu pertsonalen titular zaren aldetik, edozein unetan erabili ditzakezu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezabatuzeko, tratamendua mugatzeko, datuen aurka egiteko eta/edo datuak eramateko eskubideak.. Horretarako, mezu bat bidali ahal izango duzu edo gurekin harremanetan jarri **GOIEKI** Garapen Agentzian, Arranomendia, 5 20240 Ordizia Gipuzkoa, emaila: ana.goieki@goierri.eus

Bereziki, lankidetzaren behar bezala garatzeko, Goiekiko Garapen Agentziak Zegamako Udala-ri izaera pertsonaleko datuak eman edo eskuratzeko aukera emango balio, sarbide hori datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da une oro, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horren arabera, datu horiek eskuratu ahal izango dituen alderdiak honako betebeharrak izango ditu:

- o Datu pertsonalak ez aplikatzea edo erabiltzea hitzarmen honetan agertzen ez diren helburuetarako, eta datu horiek beste pertsona batzuei ez lagatzea, ezta gordetzeko ere..
- o Horien gaineko sekretu profesionala gordetzea, nahiz eta hitzarmen honetan zehaztutako lankidetzaren amaitu.



## ZEGAMAKO UDALA



- o Datuak babestearen arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako aginduak uneoro betetzea eta aurreko paragrafoetan aipatutako betebeharrak hitzarmen hau betetzearen ondoriozko ekintzak garatzen laguntzen duten eta esku hartzen duten langileei helaraztea.

Hitzarmen honetan zehaztutako lankidetzeta bete ondoren, tratatutako datu pertsonal guztiak suntsitu beharko dira, berreskuragarriak eta berrerabilgarriak izan ez daltezen, egindako jarduera jasota geratzeko behar-beharrezkoak direnak edo lege-aginguz eta/edo estatistika-ondorioetarako gorde beharrekoak izan ezik.

### Zazpigarrena: Jarraipen batzordea. -

Jarraipenerako Batzorde Paritario bat sortuko da, Goiekiko Garapen Agentziako tutoreak eta Zegamako Udala-k izendatutako lanbide-praktiken moduluaren tutoreak osatua. Batzorde horrek eskumena izango du jarraipen, koordinazio eta kontrol eginkizunak betetzeko, bai eta hitzarmena interpretatzean eta aplikatzean sor daitezkeen eztabaidak ebazteko ere.

### Zortzigarrena: Aurretzako ebazpena eta auzigaiak. -

Nolanahi ere, bosgarren klausulan hitzarmenaren indarraidiari buruz adierazitakoa hitzarmena aldeztatik amaitzeko arrazoi izango dira honako hauek:

- 1.- Alderdietako edozeinek bere gain hartutako konpromisoak ez betetzeagatiko suntsiarazpena.
- 2.- Alderdi sinatzaileen arteko adostasuna.

Hitzarmen hau interpretatzearen eta betearaztearen ondorioz sor daitezkeen edozein arazo, gorabehera edo eztabaidari dagokionez, Batzorde Paritarioak ebazti ezin badu, bi alderdiak Tolosako epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira berariaz, eta, hala badagokio, uko egingo diote beren foruari.

Eta ados daudela adierazteko eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, bi alderdiek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte orri guztietan, hasieran adierazitako tokian eta egunean.



GOIERRIKO EKIMENA, S.A.

ZEGAMAKO UDALA



## ZEGAMA KO UDALA

Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

**LEHENENGOA:** Goierri Ekimena S.A. Garapen Agentzia eta Zegamako Udalaren arteko "Elkar-Ekin gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuak, pertsonari egokituak: prestakuntzatik enplegura" izeneko lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea, Alkateak apirilaren 5ean emandako Ebazpena berretsiz.

**BIGARRENA:** Alkateari hitzarmena sinatzeko baimena ematea, bai eta hitzarmenaren bidez hartutako konpromisoei buruzko beharrezko agiriak ere.

**HIRUGARRENA:** Hitzarmena udaleko web orrian argitaratzea.

### **6.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.**

Goierri Turismoa S.L.ko administratzaile bakarrak, eta Goierriko Ekimena S.A. sozietateak Administrazio Kontseiluan onartutakoarekin bat, eta prezeptu legal eta estatutarioak betetzeko asmoz, 2023ko maiatzaren 25ean Batzar Orokorra ospatuko duela adierazten du, bertaratzeko deialdia eginez.

Batzar Orokor horretan, 2022ko Memoria, Balantzea, Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion proposamena, aztertu eta onartuko da.

Zentzu honetan, Batzar Orokor horretan aztertuko diren gaiak jaso ondoren, Alkateak, adierazitako agiriari berri eman eta hauen onarpena egitea proposatzen du.

Proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako 2022. urteko Memoria, Balantzea, Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioa onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Goierriko Ekimena S.A.ri jakinaraztea.

### **7.- GOIERRI IRRATI TELEBISTAREKIN LANKIDETZA ANTOLATU ETA FINANTZIATZEKO 2023RAKO HITZARMENA.**

Alkateak, Goierriko Ikuskari S.L. tik bidalitako eskaera azaltzen du.

Zentzu horretan, Udalak ematen duen dirulaguntza bideratzeko, Goierri Telebistarekin lankidetzaren antolatu eta finantziatzeko 2023rako hitzarmena onartzea proposatzen da.

Goierriko Ikuskari S.L.k epe horretan emango duen eskualderako komunikazio zerbitzua finantziatu ahal izateko, Zegamako Udalak biztanleko bi euroko laguntza emango luke.

Hau da hitzarmenaren testua:

**"GOIERRIKO UDALAK eta GOIERRIKO IKUSKARI S.L.-ren ARTEKO HITZARMENA GOIERRI TELEBISTA-rekin LANKIDETZA ANTOLATU ETA FINANTZIATZEKO 2023RAKO HITZARMENA**

*Ordizia, 2023ko martxoaren 15an*

#### **BILDURIK**

*Alde batetik, Udal honetako alkate-ordezkaria, eta bestetik, Ion Aldanondo Albisu, Goierriko Ikuskari S.L.ren zuzendaria, Goierri Telebistaren ordezkari moduan, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta zera **AZALTZEN DUTE***



## ZEGAMA KO UDALA

*Etorkizuneko informazioaren gizaratean, garrantzia handia du hurbileko komunikazioaren esparruan bertako hedabideek behar bezalako garrantzia izatea. Horretarako Goierri Irrati Telebistak, Goierriko eskualdean euskarazko komunikazio zerbitzua garatzea du helburu, informazioaren arlo tradizionalak nahiz berriak jorratuz, giza kohesioaren alde eta administrazioekin lankidetzan.*

*Helburu horiek lortzeko, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen dute, bere edukia ondoko klausulak dituelarik.*

### **KLAUSULAK**

**Lehena:** Hitzarmen honetan, Goierriko Udalen eta Goierriko Ikuskari S.L.-ren arteko hitzarmena sinatzen da, dagokigun aurtengo urte osorako. Hala ere, lankidetzaren helburua epe luzekoa denez, lankidetzaren bera ere iraunkorra izan dadin nahi dute bildutako aldeek, urtez urteko xehetasunen gainetik.

**Bigarrena:** Goierriko Ikuskari S.L.- epe horretan emango duen eskualderako komunikazio zerbitzua finantziatu ahal izateko Goierriko udalek biztanleko 2€-kin lagunduko dute. Aportazio hau 2003an adostu zen kantitate bera da.

**Hirugarrena:** 2024ko martxoaren bukaera baino lehen 2023ko jardunaren laburpena telematikoki aurkeztuko du udal honetan. Urteko memoria/jarduna, zergetan betebeharren egunean egotearen ziurtagiriak, aurkeztutako aurrekontuaren diru sarrera/gastuen zerranda eta gutxienez emandako dirulaguntzaren adinako ordainagiri eta faktura orijinalak eskaneatuta.

**Laugarrena:** Udalek ez dute bere gain hartzen hitzarmen honetan espreski agertzen ez den erantzunkizunik.

*Horrela jasota gera dadin eta adostasuna adierazteko, hontako hitzarmen hau hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.*

*Alkate andere/jaun Ion Aldanondo Albisu Goierriko Ikuskari SL."*

Eskaera aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- 2023ko Udal aurrekonturako aurreikusitako zenbatekoaren arabera (1 000.471.01.491.00 2023 aurrekontu saila) Goierriko Ikuskari S.L.ri, biztanleko 2 euroko dirulaguntza ematea onartzea. Zentzu horretan, bideratuko den laguntzaren zenbatekoa, 3.082,00 eurokoa izango litzateke.

Bigarrena.- Erabaki hau Goierriko Ikuskari S.L.ri jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Hitzarmena udaleko web orrian argitaratzea.

### **8.- GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN BIDEZ ENERGIA ELEKTRIOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO ESPARRU AKORDIOA (X19033 ESPEDIENTEA) LUZATZEA.**

Espedientea ikusirik.

Udalbatzarrak, 2020ko maiatzaren 27an, egindako bilkuran hartutako erabakia ikusirik.

Horren arabera, "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X19033) IBERDROLA CLIENTES S.A.U (IFZ.:A95758389) enpresari esleitzea erabaki zen, esparru akordioa burutzea erabakitako baldintzetan.

Prozedura horretan, jakinarazi zaio Udalari, 2022ko martxoaren 16an Gobernantza Departamentuak, Foru Agindua eman duela, honako hau ebatziz:





## ZEGAMAKO UDALA

*"Lehenengo.- Baimena ematea urtebetez luzatzeko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeako esparru akordioa (X19033 espedientea), 1. eta 2. Sortei dagokienez, IBERDROLA CLIENTES SAU enpresarekin sinatu zena (IFZ: A95758389).*

*Bigarren.- Baimena ematea urtebetez luzatzeko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeako esparru akordioan oinarritutako kontratuak (X19033 espedientea), 1. eta 2. sortei dagokienez, IBERDROLA CLIENTES SAU enpresarekin sinatu zirenak (IFZ: A95758389).*

*Hirugarren.- Aplikatzea administrazio klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 13. atalean ezarritako prezioen berrikuspena."*

Zentzu honetan ere, Alkateak adierazten du, Foru Kontratazio Zentrala, energia elektrikoaren hornidura kontratatzeako lizitazio-espeditente berri bati hasiera eman eta bideratzen ari dela.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitako kontratuen lehenengo luzapena onartzea.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

### **9.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 011/0323 erabakia, martxoaren 29koa, 5 zenbakidun fakturen erlazioa (martxo 2); guztira 57.982,11 euro onartuz.
- 012/0323 erabakia, martxoaren 30koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 013/0323 erabakia, martxoaren 31koa, hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kitapenak onartuz.
- 014/0323 erabakia, martxoaren 31koa, kreditu txertaketa espedienteari hasiera emanez.
- 015/0323 erabakia, martxoaren 31koa, aurkeztutako hirigintza kontsultaren erantzuna bideratzea erabakiz.
- 01/023 erabakia, apirilaren 3koa, 2023-KALD-000002-00 zenbakidun kreditu txertaketaren espedientea onartuz.
- 02/023 erabakia, apirilaren 4koa, Kontratazio Zentralak bideratutako kontratazio espedienteari atxikitzea onartuz (bulego materiala hornitzea-fotokopiagailurako papera).
- 03/023 erabakia, apirilaren 5koa, Goierriko Ekimena S.A. Garapen Agentzia eta Zegamako Udalaren arteko "ELKAR-EKIN GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK, PERTSONARI EGOKITUAK: PRESTAKUNTZATIK ENPLEGURA" programan parte hartzen duten pertsonen lanekoak ez diren prestakuntza-praktikak egiteko sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onartuz.
- 04/023 erabakia, apirilaren 11koa, San Martin parrokiari dirulaguntza izenduna emateko espedienteari hasiera emanez.
- 05/023 erabakia, apirilaren 13koa, Gazte Eguna ospatzeko egindako eskaerak onartuz.



## ZEGAMAKO UDALA

- 06/023 erabakia, apirilaren 13koa, Olaberria auzoko festak antolatzeko egindako eskaerak onartuz.
- 07/023 erabakia, apirilaren 18koa, hirigintza-informaziorako eskaera bidaltzea onartuz.
- 08/023 erabakia, apirilaren 18koa, 6 zenbakidun fakturen erlazioa (apirila); guztira 37.407,93 euro onartuz.
- 09/023 erabakia, apirilaren 18koa, Aseginolaza-Buztinkale 2 Eremuko 2.1. H.E.U.ko Xehetasun Azterlanaren espedientea bideratu dadila erabakiz.
- 010/023 erabakia, apirilaren 20koa, Aseginolaza-Buztinkale 2 Eremuko 2.1. H.E.U.ko Xehetasun Azterlanaren hasierako onarpena emanez.
- 011/023 erabakia, apirilaren 24koa, biztanleen ofiziozko baja bideratzea onartuz.
- 012/023 erabakia, apirilaren 24koa, 3-2023 kreditu gehigarrien espedientearen hasiera onartuz.
- 013/023 erabakia, apirilaren 27koa, 7 zenbakidun fakturen erlazioa (apirila); guztira 78.603,89 euro onartuz.

### **10.- GALDE ERANTZUNAK.**

Ez dira egiten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.